

# HARTZ AITA ETXERA DATOR

Testua: ELSE HOLMELUND MINARIK

Irudiak: MAURICE SENDAK

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 15 x 23 cm. 64 or. 12 €.

ALA NOTABLE CHILDREN'S BOOK  
HORN BOOK FANFARE  
NEW YORK TIMES BEST ILLUSTRATED BOOK

**Hartz Aita etxera dator** (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-897-8. Kalandraka-Pamiela.

**Papá Oso vuelve a casa** (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-942-7. Libros para soñar.

**Papá Oso volve á casa** (galegoz)

ISBN 978-84-8464-943-4. Tras os montes.

**El pare Ós torna a casa** (katalanez)

ISBN 978-84-8464-930-4. Llibres per a somniar.

**Pal Urso está de volta** (portugesez)

ISBN 978-989-749-050-7. Livros para sonhar.

-Hartz Txiki -esan zuen Hartz Amak-, egingo zenueke arrantzale-lana?

-Bai, noski -esan zuen Hartz Txikik.

-Primeran -esan zuen Hartz Amak-. Ibaira joango zara?

Arrain bat harrapatuko duzu guretzat?


-Bai, noski -esan zuen Hartz Txikik.

Orduan Hartz Txiki ibaira joan zen. Eta Hontza ikusi zuen han...

Aitaren figura da "Hartz Aita etxera dator" liburuan biltzen diren testuen gai nagusia. Ipuin horiek etxe inguruan eta basoko beste biztanleekiko egunerokotasunean kokatuta daude. Hartz Txikik bere amets eta desioen berri ematen digu: aitaren antza izatea eta hura bezala itsasoan arrantzan ibiltzea, nahiz eta itsasontziaren ordean enbor batean ibili, eta harrapakin bakarria errekan arrantzatutako arraintxo bat izan.

Aitaren itzuleraren albisteak itsaslami bat ezagutzeko ilusioa piztu du Hartz Txikirengan. Kumearekin batera, beste animaliatxo batzuk joaten dira aita ikustera, nahiz eta itsaslamiaren aztarna bakarria uretan agertutako burbuila batzuk eta itsas kurkuilu batean entzundako itsasoaren marmarrak izan. Horrela pasatzen duten denbora animaliatxoek, halako batean Hartz Txiki zotinka hasten denean; denak saiatzen dira zotina kentzen, egunkaria irakurtzen diharduen Hartz Aitaren lasaitasuna oztopatzen duten arren.

Else Holmelund Minarik egilearen testuei haurtzaroaren xarma, naturaltasun eta freskotasuna darie. Umorea, errepikapenak eta nonsense delakoa eta metatze-egiturak oso presente daude Maurice Sendak-ek bilduma osoan nagusi den klasikotasunez eta narrazioa aberasten duten irudimenezko elementuez jantziz ilustratutako liburu honetan.



■ **Gala:** aitaren figura.

■ **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** "Piztiak bizi diren lekuan", "Gaueko sukaldean" eta "Kanpoaldeko munduan" trilogiaren egile berarena; saileko beste titulu batzuk: "Hartz Txiki", "Musu bat Hartz Txikirentzat", "Hartz Txikirenbisita", "Hartz Txikiren laguna"; familia; irudimena; lagunak.

## Else Holmelund Minarik

(Danimarka, 1920 - Estatu Batuak, 2012)

Lau urte zituela, familiarekin batera joan zen New Yorkera. Bertako unibertsitatean Psikologia eta Artea ikasi zituen. Kazetari eta irakasle gisa lan egin zuen. "Hartz Txiki" saileko testuen egilea, haur eta gazteentzako beste testu ugari gainera.

## Maurice Sendak

(Brooklyn, New York, 1928 - Connecticut, 2012)

Haurrentzako 90 liburu baino gehiago argitaratu zituen 1951z geroztik, eta ibilbide oparo horregatik 1970ean Andersen Saria eta 1983an Laura Ingalls Wilder Saria jaso zituen. Estatu Batuetako gobernua Arteen Domina Nazionala eman zion 1996an, eta 2003an Astrid Lindgren Nazioarteko Saria eman zioten Christine Nöstlinger egile austriarrarekin batera. Margolaritza eta marrazkigintza ikasi zituen Art Students League of New York delakoan. All America Comics delakoan lortu zuen bere lehen lana lustratzaile gisa, eta 1951n Harper and Brothers argitaletxearentzat lan egiten hasi zen ilustratzaile gisa. Literaturaren alorrean benetako iraultza eragin zuen bere liburuetako forma, eduki eta ideiantik. Berezitutako kritikaren aburuz "Estatu Batuetako gizon eraginkorrenetako bat izan zen, milioika umeren fantasiak irudikatzea erantzukizun ikaragarria dela kontua hartuta".



www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com  
ctxea

soltxate@pamiela.com